

NESTOR BASTERRETXE

Marrazkilari (eta askoz gehiago) baten 60 urteko ibilbidea erakusketa batean

 **KULTURA** / Xabier Izaga Gonzalez

Artista ezaguna da Nestor Basterretxea, ezaguna denez, baina, behar bada, ez uste bezain ezaguna, bere osoan behinik behin. Inpresio horrekin atera daiteke bisitaria egunotan Gasteizko Vital Fundazioaren aretotik irtetea.

Abenduaren 8a arte ikusgai dagoen erakusketa ez du haren obra osoa bildu, ezta hurrik eman ere, baina lagin esanguratsu eta mardula da, artista bermeotarraren 300 obra inguru bildu dituen, haietako batzuk orain arte ezezagunak. 60 urte baino gehiagoko ibilbidearen erakusgarri mamitsua da.

Ez da erraza izan, ordea, lanak aukeratzea, «ez baita pintura bakarrik, edo eskultura, baizik eta horiek eta askoz gehiago, marrazkia, haren bilakaera...», dio artista bermeotarraren seme Gorkak, erakusketaren komisario ere badenak; izan ere, Basterretxea askok uste baino artista emankor eta polifazetikoagoa izan zen.

Haren lanak eta bilakaera azaltzeko, berriz, izan zezaketen laguntzailerik onena izan dute: Nestor Basterretxea bera. Erakusketa osatzen duten hiru gunetan zehar agertzen dira Nestor Basterretxearen testu laburrak. «Pentsatu nuen haren lanen gaineko interpretazioak agertu beharrean, egokiagoa zela berak idatzitako azalpenak jartzea», azaldu du Gorkak.

Eskultore gisa da ezagunen, zalantzarik gabe, ezagunak Euskal Herrian eta munduan zehar dauden obra ikusgarriak, baina askoz gehiago da gaztetatik hil artean bertan goxo egin ez zuen artistaren ibili luzea, askoz askotarikoa-

Nestor Basterretxearen ibilbidearen berrikuspen gisa, haren 300 artelan inguru ikusgai daude Gasteizko Vital Fundazioaren aretoko erakusketan. «Marrazkilaria berreskuratzeko asmoz», erakusketaren ardatzetako bat haren obren prozesu guztietan hain garrantzitsuak diren zirriborroak dira; bestea, berriz, «bertsioak».

goa hainbat estilo, forma estetiko eta joera arakatu, bide berriak jorratu zituen artistaren obra. Berak azaldu zuen bere asmoa: «Artista batek erabil ditzakeen adierazpen-tresnak ezagutu nahi izan ditut, eta ez naiz inoiz espezializatu beste diziplina batzuk ez ulertzeko

adina». Ez zuen «estetikaren mundu askotariko eta zirrargarriaren alderdi bakar batean mugatuta» geratu nahi.


MARRAZKILARIA

Basterretxearen alderdi nola-bait oharkabea gertatua edo ez behar bezain nabarmendua

lehen planoan jarri du erakusketak: marrazkilariarena. Haren artearen oinarria, esan liteke, marrazkien gainean eraiki baitu bere obra erraldoia. Erakusketa horretan burutik burura, azken obretaraino, guztien lehen pauso izan zituen marrazkiak ageri dira.

Alderdi horri berebiziko garrantzia eman diotela dio haren seme Gorkak: «Nolabait ere, erakusketa honekin marrazkilari bezala berreskuratu nahi izan dugu aita». Artista polifazetiko ageri da, jakina, baina alde hori erakusketa osoan bereziki presente dago. «Eskultore gisa da ezagunen, baina oso marrazkilari ona zen. Mahai batean eserita denbora asko ematen zuen zirriborroak egiten, trebetasun handiarekin. Gero marrazki

Gurutze-bidea saila. Vital Fundazioa



horiek eskultura edo margo-
lan bihurtzen ziren», gogoratu
du artistaren semeak.

Horixe da erakusketaren ar-
datz bietako bat. Arkatza edo
errotuladorea eta papera izan
ziren Basterretxearen lan guz-
tien hasierako elementua, eta
zirriborroen bidez iristen zen
behin betiko obrara diziplina
guztietan.

BERTSIOAK

«Behin betiko» obra horiek,
ordea, beste zerbait bihur zi-
tezkeen. Izan ere, Basterretxe-
ak «bertsioak» izenpean bildu
zituenak produkzio metodo
oso bereizgarri batean oinarri-
tzen dira, eta hori da, hain zu-
zen, erakusketaren bigarren
ardatza. Artelan bat «bere dizi-
plina gainditu eta beste asko-
rekin nola lotu daitekeen»
azaltzen dute bertsioek. «Arte-
lan bat, aspaldi bukatutzat
eman zuena, dela pintura, dela
eskultura, hainbat urte geroa-
go berrikusi eta beste zerbait
bihurtzen zuen; esate batera-
ko, fotomuntaketa edo colla-
ge», dio Gorkak.

Collagearekiko interes ho-
rretaz haxe idatzi zuen artis-
tak: «Lanen barietatearen arte-
an, azkenaldian collagea da
gehien erakartzen nauena (...).
Edertasunak leku berezia duen
eremu batera eraman nau colla-
geak. Leku horretan ederta-
suna sortzeko ilusioa beste
guztiaren gainetik dago. Agian
paper hauek izan ez banitu,
kreaio azkartasun hori, ez
nintzatekeen hain garbi eta
hain grinatsu sartuko ederta-
sunaren munduan».

Sei hamarraldiko berrikus-
pen hori hiru gune handitan
banatuta dago: sakratuaren
ingurukoa, figuratibotik abs-
trakturako igarotzea eta pla-
notik espaziorakoa. Pinturan
hasi zeneko lanak eta eskultu-



rara jauzi egin zuenekoak ez
ezik, zinemagintzan, diseinu
industrialean, grafikoan eta al-
tzarien diseinuan egindakoak,
arkitekturan eta hirigintzan
burutu gabeko proiektuak, ar-
gazkigintzan, kartelgintzan
edo idazketan egindakoak ere
ikusgai daude lagin mardul
horretan.

SAKRATUAREN INGURUKOA

Sakratua bere obran presente
egoteak harritu egiten zuela
idatzi zuen Basterretxeak, ha-
ren «azalpen onartua galdu
dudalako»; hala ere, bazuen
azalpenik: « Sakratuak ema-
ten dizun askatasuna bilatzen
dut. Bere poesia. Erakartzen
nau, asko erakartzen nau. Es-
parru plastikotik, artistikotik,
sakratua askatasun hutsa da,
irudimen hutsa. Absolutua-
ren posibilitatea da, eta hori
sorkuntzarako oso eremu
egokia da».

Sakratuaren inguruko gune-
an ikusgai daude, besteak bes-

Harzurizko eskulturak;
eskuinean, Gorka
Basterretxea.
Vital Fundazioa - Endika
PORTILLO | FOKU



te, Gurutze-bidea saila, Aran-
tzazuko Basilikako kriptarako
eskultura proiektua eta pintu-
rak, Ilargi-Amonaren maska-
rak, Disko formako hilarriak,
Lasarteko (Araba) elizarako
gurtzako objektuak eta Euskal
Kosmogonia saila.

Honetara azaldu zuen azken
hori: «Nire lan gehienetan,

formak eta koloreak espazioan
ordenatzen ikasteko ibilbide
luzean egin nuen lan, eta hori
oinarrizko ariketa da pinturan
balioen oinarri diren eskema
analitikoak aztertzeke. [...] Orain, ezagutzaren ariketa
partikular haiek gainditzten di-
tuzten asmo eta arrazoieta
ahalegintzen naiz eta konpro-

metituta bizi naiz, euskal grinak bultzatuta, gure herriaren sustrairik sakonenetan eta iradokitzaileenetan barneratzeko lanarekin, gure Euskal Herri bereziaren errealitatean zehaztuko ziren gure lehen tribu-keinueta-ko ideia inplizituak irudi ukigarrien bidez interpretatzeko».

FIGURATIBOTIK ABSTRAKTURA

Bigarren gunea marrazkigintzan, pinturan eta muralismoan egindako lehen lanen erakusgarri da.

«Bizi izan dudana bizitzatik espero zitekeena arte espresionista da», idatzi zuen Basterretxeak, «gehiegizkoa, narratiba bortitzekoa... Eta ez da horrela». Hauxe zioen abstraktura-ko prozesuaz: «Etengabe marrazten nuen... une batean konturatzen zara zure ilusio guztia, zure zeruertze guztia marrazkia dela. Lehenik errealitatea kopiazea da, gero errealitatea interpretatzen hasten zara gero, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago bereizten zara kopia horretatik. Une batean ez duzu eredu naturalaren beharrik, hau da, asmakuntza da zure arazo nagusia, eta hor hurbiltzen zara arte abstraktura, hain zuzen ere estilo horren asmatzaileak, Kandinsky-k, zioenez, pinta-zea edo marraztea da, aurretik zegoen kanpoko errealitatea kontuan hartu gabe. Hortaz, arte abstraktua zeure buruarekin duzun apustua da, kartoi mehe zuri handi bat duzu aurrez aurre eta mundu propioa sortzen hasten zara».

PLANOTIK ESPAZIORA

Forma diskoidalak; herri-lana; Lehen Amerikari omenaldia, Euskal Kosmogonia Sailean egin zuen antzera beste herri batzuen jatorria eta tra-




dizioak ulertzeko ahalegina; bolumetriak; fotomuntaketak; argazkigintza esperimentalak –«argazkia misterioaren alaba da»–; diseinu industrialak; kartelak, lan grafikoa... dau- de hedatuta hirugarren gunen horretan, «lerroak planoan duen zeregina ulertzeko moduak bultzatuta» pinturatik eskulturara pasatu zenez geroztikoak: «Une batean kontu- ratu nintzen kurbaren arabera eta bihurtunearen bortxaren arabera egiten nuen lerro ho-

Eskultore gisa da ezagunen, zalantzarik gabe, baina askoz askotarikoagoa da hainbat estilo, forma estetiko eta joera arakatu, bide berriak jorratu zituen artistaren ibili luzea

Sei hamarraldiko berrikuspena erakusketaren hiru gunen handitan banatuta dago: sakratuaren ingurukoa, figuratibotik abstrakturako igarotzea eta planotik espaziorakoa

Ezkerrean, «Mari» eta, haren atzean, «Akelarre»; eskuinean, «Askatasuna biribil zabaltzen da» eskulturaren zirriborroak. GAUR8



rrek planoak hausteko ahalmena zuela, idealizatuz gero. Eta orduan, konturatu nintzen hirugarren dimentsio bat baze- goela hor, lerroaren eraginez hazten hasia. Eta une batean bihurtune horiek bortxatu ni- tuen, eta bihurtune horien maiztasuna ere bai, planoak bisualki eztanda egin zidan arte. Eta orduan burdinazko xa- fla bat hartu eta fisikoki egin nuen nik idealizazioz senti- tzen nuena. Eta hor sartu nin- tzen eskulturan».

Euskal Herrian eta mundu- ko zenbait herrialdetan zehar banatuta daukan obra publi- koaren argazkiak, maketak eta betiere haien aurreko marraz- kiek betetzen dute gunen ho- rretako tarte bat: «Eskulturrek herriari bizia ematen diote eta kaleek eskulturrei bizia ematen diote».

Halako elkarketa edo osaga- rritasuna sumatu zuen arki-

tekturarekin: «Arte plastikoak arkitekturan integra daitezke, fusio absolutu eta harmonia- tsu gisa. Kontua ez da espazio arkitektonikoak aberastea, erresonantzia berriak dituzten espazioak sortzea baizik».

Eta paper gainean egin zi- tuen arkitektura proiektu edo «bolumetriak» azaltzean, ideia bertsuan sakondu zuen: «Ez ditut eskulturak eraikin bihur- tzen. Nik arkitektura bihur- tzen dudana eskultura kon- tzeptu bat da, nire lanaren baitatik datorrena. Eskultura- tik abiatuta heldu naiz arkitek- turara. Nire eskulturaren izaeraren muinean, sendotasun arkitektoniko horretan, trin- kotasun formal horretan, dau- de abiapuntua eta helmuga. Arkitekturarekin topo egitea gertatu beharreko zerbait zen. [...] Bolumen hutsaz ari naiz, *bolumetria arkitektonikoez*, eta hitz hori erabiltzen badut arkitekturatik bereizteko da, arkitektura behartuta baitago funtzio batzuk errespetatzera, egitarau jakin bat betetzera».

KOMISARIOTZA BEREZIA

Norberaren aitaren erakuske- taren komisario izateak zer- bait berezia behar du izan, eta halaxe da kasu honetan, Gorka Basterretxeak dioenez. «Duela urtebete-edo hasi nintzen an- tolatzen, Hondarribia eta Gas- teiz artean, etxean zeuden obra asko berrikusten, berraur- kitzen, amarekin, familiarekin, oroitzapenak, argazki eta idatzi zaharrak berrikusten...».

Etxean zeuzkaten lan uga- rietako batzuk inoiz ikusi ga- beak dira. Horiez gainera, Bil- boko Arte Ederren eta San Telmo museotakoak, Vital Fundaziokoak eta funts parti- kularretako beste hainbatek osatzen dute Basterretxearen obraren erakusgarri zabala.